



## VIII. LANGOSTINO MOTO FESTA BIHAR ETA ETZI

300 motor zale inguru elkartu ohi dituen jaia antolatu dute Ibarako Langostino Moto Kultur Elkarteko kideek > 5

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Ostirala  
2010-07-02

VIII. URTEA 2.041. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Marimi Ugaldede, Irurako alkatea, eta Joxe Mendizabal, Ikastolako lehendakaria, aurkezpen ekitaldian. ASIER IMAZ

## IKASTOLAREN ALDEKO GARAGARDO AZOKA ANTOLATU DUTE

**IRURA** Dirua biltzeko eta herrian giroa jartzeko asmoz, frontoian egingo duten zortzigarren edizioak gaur zabalduko ditu ateak >

## Gipuzkoako Foru Aldundiak 95 etxebizitza egitea ahalbidetzen duen Plan Orokorra onartu du

**BIDEGOIAN** Planak Bidanian 89 etxebizitza egitea aurreikusten du eta beste 6 Goiatzen; etxeak bi edo hiru solairukoak izan beharko dira > 4

## Gaur botako dute Amarotzeko jaien txupinazoa

**TOLOSA** Aurtengoan ez da danborradarik izango, «urtez urte parte-hartzea txikiagoa» zen eta; igandean amaituko dituzte festak >



AGURTZANE BELAUNZARAN

**XABIER PERURENA** AKTOREA

«Tratu txarren gaia jorratzen du laburmetraiak»

**LEITZA** Aktore bezala ezagunagoa bada ere, zuzendari eta gidolari lanetan murgildu da orain; laburmetraia irailerako prest izatea espero du > 6



Iturriza elkarteak antolatutako Mus Txapelketako irabazleak euren sariekin. KLUSK



Ikuskizun dotorea eskaini zuten errektoriarik zezenen aurrean. IMANOL GARCIA

# Jaiak «arazorik gabe eta giro onean»

**Kultura** » Jai batzordeak balantze «baikorra» egin du aurtengo Sanjoanen inguruan; koadrilen eta eskopetarien parte-hartzea nabarmendu dute.

## ERREDAKZIOA

Baikor azaldu da jai batzordea aurtengo San Joan jaiek eman dutenarekin. Herenegun bildu ziren bertako kideak, eta oro har, «arazorik gabe» joan direla jaiak, eta «giro ona» nagusitu dela nabarmendu zuten.

Hobetzeko puntuak badirela, baina ekitaldi guztiek harrera ona izan dutela adierazi dute jai batzordetik. «Jendea gustura geratu da San Joanetako ohiko ekitaldiekin -haurrentzako ikuskizunak, estropadak, kontzertuak...- argitu dute.

Eskopetariari «parte-hartze handia» azpimarratu dute, «inoiz baino jende gehiago izan baita, 800 lagun, hain zuzen, eta giro polita sortu zen egunean zehar».

Festetatik nabarmentzeko beste egun edo ekitaldi bat Koadrila Eguna da jai batzordetik azaldu dutenez. Aurtien berrikuntza bezala, Koadrila Eguneako bazkaria Euskal Herria plazan egin zuten, norberak prestaturiko janariarekin. Bada, jendea «gustura» geratu dela eta giro polita nagusitu zela

azaldu dute, beste urteetan baino koadrila gehiago izan direlarik.

## Mus txapelketa eta errektoriarik

Hutsik egiten ez duen ekitaldi-tako bat Iturriza jubilatutako Mus Txapelketa izan ohi da. Aurrekoetan bezala, «arrakastatsua» izan da, parte-hartze handia izan baitu, eta antolatzaileak pozik azaldu dira. 8 erregera 6 bikotek hartu zuten parte, eta Romualdo Calvo eta Fernando Rojo

izan ziren irabazleak. 4 erregera, berriz, 8 bikote aritu ziren, eta Antonio Gonzalezek eta Juan Aris-tondok osaturiko bikotea izan zen garaile.

Errektoriari ikuskizuna ere izan da beste urte batez San Joan jaietan. Hain zuzen ere, Errektoriari Txapelketako lehen finalerdia hartu zuen Tolosako zezen-plazak, eta lehiatu ziren 20 errektoriari artean Arganda del Reyko Ruben Fernandez *Cuatío* izan zen irabazlea.

# Gaurtik igandera bitarte jai giroa nagusituko da Amarotzen

## ERREDAKZIOA

San Joan jaien ostean, Amarotz auzoko jaien txanda da orain. Gaur botako dute bertan festen hasiera iragartzen duen suziria eta igandera bitarte hamaika ekitaldiz gozatzeko aukera izango da. Auzo elkartetik azaldu dutenez, «aldaketa handirik ez da izango egitarauan, baina, bizi dugun egoera kontuan hartuz, gastuak murrizteko ahalegina egin da». Hori bai, eguneroko kezkak alde batera utzi eta jaietz gozatzeko mezua bidaltzen diete auzotar guztiei.

Aurtengo egitarauan auzoko danborradak huts egingo du, izan ere, «urtez urte parte-hartzea txikiagoa zen», eta kentzea erabaki dute. Txikienei zuzendutako kultur ekintzak, baina, ez dira faltako; horietan, *De Bourbon a Broadway*



Gaztetxoei zuzendutako ekitaldi ugari izango dira aurtien ere. IT.

jazz kontzertua nabarmentzen dute, «ikuskizun musikala eta pedagogikoa aldi berean».

Gastronomiak ere bere lekua izango du jaietan lehiaketa eta bazkari eta afariekin, eta baita kirolak ere ohiko txirrindulari probarekin.

Artisanu eta eskularen zuzeneko erakustaldia ere egingo dute hirugarren urtez, «pixkanaka indarra hartzen ari den ekitaldia».

Osagai guztiak dituzte, beraz, Amarotz auzoko jaiek bertaratu eta ederki pasatzeko.

## » EGITARAUA

### Uztailak 2, ostirala

- 16:00. Jaien hasiera txupinazoa-ekin.
- 16:00. Haur jolasak txoko txikin eta buruhandiak.
- 18:00. Karta jokoen finalak eta txokolatada.
- 19:00. Compañía del Sacoren *Camino de estrellas* antzezina.
- 20:00. Tolosako Musika Bandaren kontzertua.
- 20:30. *Amarotz kantari* festa gi-roan.
- 21:30. Auzo afaria.
- 00:00. Disko festa.

### Uztailak 3, larunbata

- 08:00. Garbiketa Txukun Txarra Zaharra taldearen eskutik.
- 10:00. Amarozko Txirrindulari Proba Patxi Rodrigezen oroime-nezkoa. Kadete mailakoa, Oriaki txirrindulari eskolak antolatuta.
- 10:00. Diana, Amarozko Konpon Ezinak taldearekin.
- 10:00. Fatxada eta balkoi loratuen lehiaketa.
- 10:30. Jolasak, gaztelu puzgariak eta buruhandiak.
- 12:00. Bakailao lehiaketa ajoarriero erara.
- 12:30. Amarozko haurren dantz ikuskizuna.
- 14:30. Bakailao lehiaketako sari banaketa eta bazkaria.

- 16:00. Puzgariak eta jolasak.
- 16:30. VII. Mus azkarra lehiaketa, Ekaitz tabernan.
- 18:00. *Hip Hop* eta Jon Magik.
- 19:30. *De Bourbon a Broadway* jazz emanaldia.
- 20:30. Euskaraokea eta play-back lehiaketa txikientzat.
- 21:30. Auzo afaria.
- 00:30. Disko Festa: DJ Tomson.

### Uztailak 4, igandea

- 08:00. Garbiketa Betikoak taldearekin.
- 09:30. Iurreko Andre Mari elizan meza auzoko hildakoen alde.
- 09:30. Diana Tolosako Txistulariekin.
- 11:00. Erromeria. San Blas ermitatik kalejiran jeitsiko dira. Amarozko Dantza Taldearen eta Amarozko Dantzari Txikien emanaldia.
- 11:00. Amarozko Artisau eta Eskularen erakusteta.
- 12:00. Toka txapelketa.
- 13:30. Fatxada eta balkoi loratuen lehiaketako sari banaketa.
- 14:30. Auzoko bazkaria Amarozko txaragarekin.
- 18:00. Antzerkia: David Batlo + Txefo & Andu. Ondoren Nany Gogornoren *Jujurujaja* (19:00etan).
- 19:30. Aurrekua.
- 13:30. Sardina erreka, sagardoa eta musika Zelaia anaiekin.

**Gidariak** behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

**Lan publikoetarako** zainzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenurako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

**Telefonistak/harreragileak** behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40

# Irurako VIII. Garagardo Azokak gaur zabalduko ditu frontoiko ateak

**Kultura** » Gaur, bihar eta etzi garagardoaz eta honen inguruko jakiez gozatzeko aukera egongo da herriko frontoian.

## ASIER IMAZ

Atzo aurkeztu zuten Irurako VIII. Garagardo Azoka. Lehen tanta freskoek berriz gaur ikusiko dute argia, 19:00etan zabalduko baititu ateak Azokak.

Udalak eta Ikastolak bertara agertzeko deialdia luzatu dute, bertan lortutako «xoxak» Ikastolari laguntzeko izango baitira. Eguraldi erreak ere deialdiarekin bat egin nahi izan du.

## Ikastola eta Udalaren artean

Marimi Ugalde Irurako alkatea eta Joxe Mendizabal Ikastolako lehendakaria aurkezpen ekitaldian izan ziren atzo. Hau amaitu osten ordea, lanari heldu zioten berriro ere, VIII. Garagardo Azoka prest utzi nahian. Hauekin batera, izerditan zebiltzan boluntarioak ere ez ziren falta.

Mendizabalen esanetan, «normalean Garagardo Azoka Udalaren eta Ikastolaren artean antolatzen dugu. Beti bezala Ikastola diru faltan aurkitzen da eta Azoka bi helbururekin eramaten dugu aurrera: herriari giroa jartzeko eta batez ere, diru pixka bat aterazeko Ikastolari laguntzeko». Bide horretan Udalaren laguntza ezinbestekoa dela onartu zuen Ikastolako



Gorka Urtaza, Jose Luis Olano, Marimi Ugalde eta Joxe Mendizabal atzoko aurkezpenean. A.I.

lehendakariak, baita boluntarioena ere: «Beti bezala, urtero, hor izaten dugu udaletxearen laguntza. Baita herritarrena ere. Eta ezin ahaztu Ikastolako gurasoetz, irakasleez...».

Marimi Ugaldek bere aldetik, ahal dutena egiten ari direla azaldu zuen: «Zer edo zer antolatzen denean herriarentzat esanahi handia edukitzen du. Lanean dabilzan herritarrek elkarlanean ikustea ere polita da, hori bai, deialdi bat egin nahiko nuke: jende gehiago etortzeko eskatuko nuke, lanean beti berdinak aritu ez daitezten.

Bestalde, xoxak behar ditu Ikastolak. Udaletxeak bere aldetik krisia dela eta ez dela, zuzenean gehiegi ezin du lagundu. Baina horrelako ekimenak daudenean, ahal den guztian laguntzen saiatzen gara».

Mendizabalek horrelako ekimenen garrantzia azpimarratu zuen: «Azken finean, horrelako hainbat gauza egiten ditugu urtean zehar Ikastolaren alde. Bat erortzen baldin bazaigu, guretzat galera handia izaten da. Urterokoa mantendu nahian gabilza alde batetik, eta bestetik, buruari bueltak ematen ea beste zerbait asmatzen

dugun xoxa batzuk ateratzeko. Aurtun, lehen esan bezala, Garagardo Azoka antolatzen dugun zortzigarren urtea da. Sendotuta dagoela uste dut eta antolakuntzan ere nahiko ongi moldatzen gara. Mundu guztia ongi etorria izango da eta edatekoaz gain jateko dazente dagoela ere esan nahi dugun».

Jakien artean, azken bi urte hauetan ohikoez gain bakaillaoa tomatearekin eskaini dute. Izarra birlakatu den platera da gainera: «Ikastolako amona den Mari Patzek prestatzen du, beste batzuen laguntza ahaztu gabe. Sukaldari-

## » GARAGARDO AZOKA

### Edaria

- **Garagardo.** 17 mota.
- **Ezaugarriak.** 12 hori, tostatuak hiru eta beltzak 2.
- **Besterik.** Freskagarriak, ura eta kafea. Garagardo guztiak 3 eurotan. Pitxarra euro bat.

### Jatekoa

- **Ukondoa.** 9 euro.
- **Bakaillaoa tomatearekin.** 5,5 euro.
- **Saltxitxak (Frankfurt eta Bratwurst).** 2,5 euro.
- **Kroketak.** 2,5 euro.
- **Irurako txistorra.** 2 euro.
- **Irurako pastelxoak.** 3 euro.
- **Euskal pastela.** 3 euro.
- **Gazta eta irasagarra.** 3 euro.

## F FRONTOIAN

# Ordutegia

- **Gaur, hilak 2.** 19:00etatik azkenak erretiratu arte.
- **Bihar, hilak 3.** 18:00etatik azkenak bidali arte.
- **Etzi, hilak 4.** 18:00etatik itxi arte.

tza asko gustatzen zaio eta horretan ibili da orain arte. Jangelan ere aritzen da. Azken bi urteetan arrakasta handia izan duen platera da», azaldu zuen Marimi Ugalde alkateak.

Azkenik, herritarrek, eskualdeko eta gerturatu nahi duen guztiak Iruran berelekuaz izango duela azaldu zuten antolatzaile taldeko kideek. Gaur, bihar eta etzi, hain zuzen ere.



## Munduko 20 gazte auzolanean

**TOLOSA** » Auzolandegiko gazteak atzo iritsi ziren Tolosara eta ongietorria egin zitzaizkien Topagunean. Aurtun, Frantzia, Hego Korea, Errusia, Estonia, Alemania, Kanada eta Bizkaia eta Gipuzkoako hamabost gazte etorri dira. Alkatearen harrera jasotzeaz gain, begira-

leak aurkeztu zitzaizkien, eta *Tolosa Begibistan* bideoaren emanaldia eskaini zitzaizkien, herria ezagutarazteko asmoz. Aurtun Auzolandegian, Uzturreko Dorrea eta San Inazio Sanatorioaren garbiketan eta berri-zean arituko dira gazteak. A.I.M.A.Z

Eskuratu liburua  
**ekainaren 30a**  
bitartean  
**12 euro**ren  
truke.

BERRIaren  
harpidedunentzat  
**eskaintza berezia:**  
**6 €**

Amesgaiztoa  
Egunkaria auzoko epaiketaren kronika

Pello Huetza | berria

Egin eskaera eta etxean jasoko duzu  
www.berria.info  
harpidetza@berria.info  
943-30 43 45

AUKERA ezazu,  
BIZI euskara  
**berria**





Internet onena,  
etxe barruan

BARRUAN ZUNTZA  
18M

## Bidegoianen 95 etxebizitza berri eraikitzeke plana onartu du Aldundiak

**Bidegoian** » Helburua da «gaur egun indarrean dauden Hiri Antolaketako Arauen zehaztapenak berrikusi eta eguneratzea».

### OIHANA IGARAN

Gipuzkoako Foru Aldundiak behin betiko onartu du Bidegoian-go Hiri Antolaketako Plan Orokorra. Hirigintza agiri berria egungo hiri antolaketako arauen ordezkua izango da, hauek 1995eko apirilekoak eta 1996ko maiatzekoak baitira. Indarrean dagoenez geroztik baldaketa-espeditente izan ditu.

Foru Aldundiaren bozeramaile den Eneko Goiak jakinarazi duenez: «Plan Orokor berriaren helburua da indarrean dauden arauen zehaztapenak berrikustea eta eguneratzea, eta hirigintzako tresna bat edukitzea, ekonomia eta gizarte baldintza berriei egokitu». Bidegoiangoa udal barrutiak bi hirigune ditu, Bidania eta Goiatz, hain zuzen, baina bat egin zuten 1964an udalerririk bakarra osatzeko.

### 95 etxebizitza berri

Goiak azpimarratu duenez, onartutako hirigintza agiriak 95 etxebizitza berri eraikitzea aurreikusten du, gehienak Bidaniko hirigunean eta 6 Goiatzen. Eraikuntza tipologia, oro har, dentsitate baxukoa izango da, bi edo hiru solairuko etxeekin konbinatuz Errota Gain, Kalegoiena eta Mediku Etxean. Honela, bertan nagusi den eredu hauitsi gabe.

### Biribilgunea eta bide paraleloa

Bide azpiegituren gaiari dagokionez, Planak barruan sartzen ditu oraingo errepideak, eta berrikuntza gisa Bidaniko eta Goiazko hiriguneak lotuko dituen aurreikusten du biribilgune bat egitea aurreikusten du.

### Ikastola handitzea

Ekipamenduen gaia dela-eta, bozeramaileak aipatu duenez, testu berriak oraingo azpiegiturak jasotzen ditu, eta baita Ikastola handitzeko proposamena ere. Gainera, historia, arkitektura eta arkeologia aldetik interesa duten elementuen zerrenda ere gehitzen du, haiek babesteko arautegia zehaztuz. Bi hiriguneetako elizen inguruan dauden espazio libre eta berdeguneen osagarri moduan, parke izateko espazioak ere aurreikusten ditu Agerralde Azpi 3. ren ondoan, beste bat Elbarren industrialdearen inguruan, eta beste bat Palazio Txiki.

Industria erabilererarako lurzoruari dagokionez, Elbarrenen gauzatutako garapenak finkatzen ditu Planak, eta zona horren jarraipen gisara, area sortu berri bat aurreikusten du, hektarea bat baino pixka bat handiagoa dena.

### Agiri batagina

Foru Aldundiaren erabakiak hala ere, ez du onartzen Palazio Txiki-aren antolaketa eremua onartzea, izan ere zonalde horretan dagoen

landaretzak berez duen balioa babestu nahi dute. Horiek horrela, elizaren inguruari balio handiagoa ematearren Udala prestatzen ari den parke publikoa egokiagoa dela dio Plan Orokorrak.

Eten egiten ditu, era berean, hirigintza antolaketako zenbait eremutan aurreikusitako jarduerak -Goiatz Gain 1, Bidania 4, Aurreko- etxe Azpi 14, Mañane 16 eta Iparragirre 17-, izan ere gaur egun hiritarrezin gisa sailkatutako lursailak lurzoru hiritarren izatea bidezkotu egin behar baita. Era berean, Errota 11. area lurzoru hiritarra izatetik hiritarrezinera izatera pasatzen da, eta Bidaniako plaza 1. areari Errota Gain 12. eremua gehitzen zaio.

Bukatzeke, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak Bidegoiangoa Udalak agiri bat egin eta onartu beharko duela esan du.

Espeditenteetako erabaki eta agiri guztiak jasoko dituen eta adierazitako baldintzak beteko dituen agiria Gipuzkoako Foru Aldundira bidali beharko du, gehenez ere hiru hilabeteko epean.



Bidanian 89 etxebizitza egingo dituzte. N. URBIZU

## Artzain eta abeltzaintzako tailerrak, Amezketan

### OIHANA IGARAN

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioak abiarazitako *Aralar eta Aizkorri-Aratzeko larreak zaintzeko eta hobetzeko abeltzaintza jardunbide egokiak* izeneko egitasmoa dela eta artzainei eta abeltzainei zuzendutako mintegi batzuk izango dira datorren astetik aurre-

ra. Tailerrak doakoak izango dira eta bertan, larreen kudeaketaren inguruko ezagutzak eta esperientziak elkarbanatuko dituzte partehartzaileek.

Aralarko Parke Naturalera egingo den irteera batekin osatuko dituzte eskolak.

Arestian aipatu moduan tailer horietako bat Amezketan izango

da, hilaren 5 eta 19an, eta baita abuztuaren 2an ere, zehazki, 11:30etik 13:30era.

Hiru izango dira jorratuko dituzten gai nagusiak: Aralar eta Aizkorri-Aratzeko artzaintzaren iragana, oraina eta etorkizuna; larreen kudeaketan eta zaintzarako jardunbide egokiak; eta larreak eta aldaketa klimatikoa.



Bihar arratsaldean motorrarekin joko ezberdinak egingo dituzte herriko plazan. NEREA URBIZU

## Inguruko motor zaleen festarik handiena hemen da

**Ibarra** » VIII. Langostino Moto Festa ospatuko dute asteburu honetan; akrobaziak, kontzertuak eta gehiago izango dira.

### ERREDAKZIOA

Motor eta burrunba zaleek hitzordua dute asteburu honetan Ibarrran. Bertan ospatuko da, Langostino Moto Kultur elkarteak antolatutako VIII. Moto Festa. 300 motor zaletik gora biltzen dituen ekitaldia da hau, eta jada ongi finkatua dagoen jaialdia.

Bihar 14:00etan ekingo diete ekitaldiei. Ongietorriaren ostean, eta denak bilduta, arratsaldean, jokoak egingo dituzte. Besteak beste, motorrarengainean ahalik eta motelen ibiltzen saiatuko dira, garagardo kupela motorraren aurreko gurpilarekin bultzatzen...

Jarraian, motorrarekin akrobaziak egiten artista den horietako

baten emanaldia izango da, Andre Colombo, Portugalen bizi den brasildarrarena. 14 urterekin hasi zen bi gurpilen gainean, abileziak egiten, baina motorrik gabekoetan. Hiru urte beranduago hasi zen motorrean ibiltzen. Hala, 1996an, Brasilgo lehen stunt txapelketan hirugarren geratu zen. Ordutik aurrera, serio hartu zuen, ordura arte, afizio zuena. 2001ean 225ccko mailan, Brasilgo garaile izan zen. Urte bat beranduago, Portugalera joan zen bizitzera, eta mota guztietako jaialdi eta ekitaldietan parte hartzen hasi zen. Colomborekin batera, bere emaztea ere ikusi ahal izango da biharko ikuskizunean.

Gauean, denek batera, elkarrekin afalduko dute. Egunari amaiera emateko beriz, rock doinuak, streptesea eta DJ-ak. Eszenatikian, talde tolosar bat, Desordutan, hain zuzen ere. Hala ere, Moto Festari etzi esango diote agur, inguruko txokoetatik bira bat eman

### » VIII. LANGOSTINO MOTO FESTA

#### Uztailak 3, bihar

- **14:00.** Festa hasiera.
- **17:30.** Motorrekin jokoak.
- **19:30.** Stuntman - moto akrobaziak. Andre Colombo (Animal) Portugal.
- **21:00.** Afaria.
- **23:00.** Rock jaialdia Desordutan eta Sleep Walkers taldearekin.
- **02:00.** Streptesea mixtoa (show total).
- **03:00.** DJ.

#### Uztailak 4, etzi

- **09:00 - 10:00.** Gosaria.
- **10:30.** Motorrekin bira, bidean hamaiketako ere izango da.
- **13:00.** Ibarrra itzulera.
- **14:00.** Bazkaria eta festa amaiera.

ostean. Izan ere, hori da azken batean, motor zaleentzat gozagarria, haizearen kontra joatea.

## Lehen Korto Lehiaketa antolatu dute Atekabeltz-en

**Leitza** » Gaia askea da eta 15 minutu iraun beharko ditu lanak gehienez; hilaren 16an amaitzen da hauek aurkezteko epea.

### ERREDAKZIOA

Atekabeltz gaztetxeak lehendabiziko aldiz, Korto Lehiaketa antolatu du. Honenbestez, inguruko gazteek sormena lantzeko eta garatzeko beste aukera bat izango dute.

Baita beraien kezkek, ideiak, gogoak... bideo batean biltzeko ere.

Parte-hartzaileek, nahi duten gaia aukeratuta, film labur bat osatu beharko dute. Hauen iraupena gehienez, 15 minutukoa izango da.

Taldeka nahiz banaka eman daiteke izena, baina hori bai, talde bakoitzak gehienez hiru lan desberdin aurkeztu ahal izango ditu. Parte-hartzea errazteko, bideoak bi modutara grabatuak izan ahaliko dira, alde batetik, kameraz, eta bestetik, mugikorrez. Hauek, DVD

batean utzi beharko dira, eta kartazal batean sartuta. Bertan, taldeko partaideen izenak zehaztuz. Hau da, zuzendariak, aktoreak... Baita film laburraren izenburua ere.

Lanak Atekabeltz gaztetxeko atarian dagoen buzoiean utzi beharko dituzte parte-hartzaileek. Horretarako epea hilaren 16an amaituko da. Lan guztiak bildu ostean, proiektzioa eta sari banaketa hilaren 23an egingo da, Gaztetxean bertan. Aurkezpena 22:30ean hasiko da.

eta handik kanpo

KANPOAN  
+ INTERNET MUGIKORRA

euskaltel

INTERNET 2in1  
HOLA SOA  
DOKUPUZ  
20,9€ / 17€

euskaltel  
ZUPITZAI

Deitu 1717ra - www.euskaltel.com



E **Elkarrizketa****XABIER PERURENA** ▶ Aktorea

**Leitza** » Goenkalen ikusi dugu aktore gisa. Orain, kameran atzean dabil, zuzendari eta gidoilari lanetan. Herrian grabatu berri du laburmetraia bat.

**AGURTZANE BELAUNZARAN**

Gaztea, euskalduna, aktorea eta zuzendari lanetan estreinatu berria da bera, Xabier Perurena (Leitza, 1987). Pantailaren bestaldean, Ibon Petralanda izena hartu du eta Euskal Herrian ezaguna den Arraldeko gora beheren protagonista izan da Goenkalen. Aktore lanak Madrileko antzerki eskolako ikasketekin tartekatzen ditu. Udaran oporrak hartu beharrean, laburmetraia bat zuzentzea otu zaio. Bere etxea eta Leitza kaleak plaito bihurtu ditu. Zuzendariaren klaketa eskuan duela ari da lanean. Pantailaren bi aldeak ezagutu nahi baititu berak.

**Goenkale izan al da zure lehen lana aktore gisa?**

Goenkalean hasi baino lehen, Madrilen figurazioak egin nituen *Yo Soy Bea* eta *Mi hermana gemela es hija única* telesailetan. Han eman nituen nire lehen pausoak telebistako platoetan. Madrilen figurazioak egiten nituen bitartean, antzerkigintza ikasteko beharra sentitu nuen eta Bilbon hasi nintzen. Antzerkia gertutik ezagutzeko aukera izan nuen. Gero iritsi zen Goenkalerako jauzia.

**Gustura aritu al zara Arralden lanean?**

Oso gustura. Nire burua ere ongi ikusi dut antzeztan. Ibon Petralanda gaztearen papera egin dut eta kartzelatik pasa ostean, kalean nahiz berriro. Datorren denboraldian ere Goenkalen ariko naiz. Aktore gisa ere, gero eta hobeto ikusten dut nire burua. Madrilgo antzerki eskolarekin tartekatuta aktore lana eta asko ikasi dut eskolatan.



## «Antzezte, egunetik egunera gustukoagoa dut»

**Kameran aurrean aktore lanak egin eta orain laburmetraia bat zuzentzen ari zara. Nondik nora sortu zen ideia hau?**

Madrileko eskolarako bakarrizketa bat idatzi nuen. Gero, historia bera luzatu egin nuen. Nire gidoia nik neuk zuzentzea ideia ona zela iruditu zitzaidan.

**Nolako da laburmetraia? Zein gai lantzen du?**

Drama ikaragarria da, negar egite-

ko horietakoa. Tratu txarren gaia jorratzen du, hilketa bat ere bada-go tarteko. Gogorra da historia, 18 minututan puntu asko lantzen dira, drama bizia da, gogorra.

**Zuzendari eta gidoilari, zu zeu, eta aktoreak nongoak dira?**

Aktore nagusia ni neu izango naiz. 14 pertsonaiek hartzen dute parte laburmetraian, ia denak Leitzaokak, besteak Lekunberri eta Doneztebeokak dira. Antzerki eskolan

aritu dira urte guztian zehar eta elkarlanean laburmetraia osatzea erabaki nuen. 6 pertsonaia nagusik osatzen dute historia eta guztiak dute zerbait kontatzeko.

**Herriko aktoreak, herriko zuzendaria eta herrian grabatua...**

Halaxe da, 4 egunetan grabatu dute laburmetraia. Barnealdeko irudiak nire etxean grabatu ditugu, baita Peritz tabernan ere. Kanpoak berriz, herrian bertan. Lei-

tzako produkzioa da osoki. Materiala eta teknikariak Andoaingo ESCIVI eskolakoak dira. Edizio lana ere bertan egingo dugu.

**Noiz ikusiko dugu laburmetraia pantaila handian?**

Orain muntaia falta da, irudiak bata bestearen segidan jarri eta historiari zentzua ematea. Irailean amaitua izatea nahiko nuke. Leitzaok zineman estreinatuko dut, oraindik izenik jarri ez dioten laburmetraia.

**Eta gero....**

Estatuko zinemaldi eta laburmetraien lehiaketetan aurkeztuko dut lana.

**Euskaraz egin duzu lan orain arte. Zergatik erabaki duzu lan hau gaztelaniaz egitea?**

Azken batean, gaztelaniazko lanak zabalpen handiagoa duelako egin dut lan hau gaztelaraz. Euskaraz zein erdaraz antzeztan dudanean gustura sentitzen naiz.

**Aktore hasi berria izateko ur handietan sartu zara....**

Uste baino konplikatuagoa da bai, zuzendari lana. Lehen aldia da, esperientzia gutxi eta lan asko. Baina nik nahi dudana emaitza lortzen badut, jendeak gustuko izango du.

**Aktore lana nahiago orduan?**

Dudarik gabe, aktore lana barruan daramat.

**Nondik datorkizu aktore izateko gogo hori?**

Antzerki mundua beti izan dut gustuko, lotsarik ere ez dut, gainera. Gertutik ikusi dut etxean aktoreen bizimodua aitarekin. Froga gisa hasi zena ofizioa dut orain. Antzezte gainera, egunetik egunera gehiago gustatzen zait.

**» DI-DA BATEAN****■ Txikitán zer izan nahi zenuen?**

Harakina.

**■ Telebistan zer duzu gogoko?**

*Sin Tetas no hay paraíso.*

**■ Aktore bat.** Miguel Angel Silvestre, *El Duque.*

■ Pelikula bat. *Celda 211.*

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900







26°  
17°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	24°
HOTZENA	16°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Jaiak

■ **Asteasu.** San Pedro jaiak: Koadrilen Eguna; bazkaria plazan, haurren goitibera lasterketa Elizmendin, musika kalean, herri afaria eta Trikujai Diskofesta.  
■ **Tolosa.** Amaoroko jaiak: 16:00etan txupinazioa, haur jolasak, buruhandiak eta karta jokoen finalak; 19:00etan antzerkia; 20:00etan Tolosako Musika Bandaren kontzertua; ondoren bizilagunek abestuko dute; auzo afaria eta disko festa.

### Musika

■ **Tolosa.** Tolosandblues 2010: Lou & Marini Euskal Herria plazan 22:30etan eta The Romantics Frontoi kafetegian 24:00etan.

### Antzerkia

■ **Tolosa.** La compañía del saco taldearen *Camino de estrellas* antzezlan Amarozko 12. Antzerki Astearen barnean, 19:00etan, Amarotz auzoan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarrea, J. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28  
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneri eta iritzien erantzukizunik.

## A Agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

agurrak

Seigarren aldiz aurten, Tropela Elkarteak Frantziako Tourreko lehiaketa jarri du abian bere webgunean; kiniela egiteko eta txirrindulariak aukeratzeko azken eguna bihar izango da, hilak 3.

# Hasi da Tropelaren tourra

### ERREDAKZIOA

**A**lberto Contador, Lance Armstrong, Frank eta Andy Schleck, Samuel Sanchez, Cadel Evans... Txirrindulari denboraldiko hitzordurik garrantzitsuena bihar bertan hasiko da: Frantziako Tourra. Ondorioz, eta urtero bezala, Tropela Elkarteak kideak jo eta ke dabilta lanean euren tour-a abian jartzeko *tropela.net* webgunean. Aurtengoa, Frantziako Tourreko lehiaketa antolatzen duten seigarren aldiz dute, eta aurreko urteetako arrakastari eta gorakadari eutsiz gero, hamabi edo hamahiru mila kidez osatutako Tropela izatera helduko direla aurreikusten dute antolatzaileek. Zalantzarik gabe, «marka itzela euskara hutsen eta Internet bidez jorratzen den proiektu honentzat».

### Kinielak egiteko aukera

Frantziako Tourreko kiniela egiteko aukera dagoeneko zabaldu dute, eta horretarako edo txirrindulariak aukeratzeko azken eguna uztailaren 3a izango da. Lehiaketa doakoa da eta Internet bidez soilik hartu daiteke parte; inoiz parte hartu ez dutenek bere erabiltzailea sortu beharko dute lehenik eta behin, formulario sinple bat beteta. Erabiltzailea sortu ondoren, Tropelak jartzen duen zerrendatik txirrindulariak aukeratu eta kiniela egin ahal izango dute parte-hartzaileek. Pertsona bakoitzak erabiltzaile bakarra eta kiniela bakarra egin dezake, baina proba hasi aurretik nahi adina aldiz datu ahal izango du.

Puntuazio-sistema baten arabera funtzionatzen du lehiaketak: lasterketako emaitzak aintzat hartuta, txirrindulariak puntuak metatuz joaten dira eta, bide batez, parte-hartzaile bakoitza ere bai. Etapa bat amaitu eta berehala, *tropela.net* webgunean bertan lehiaketako sailkapen guztiak jartzen dituzte egunero, erabiltzaile bakoitzaren puntuaketaekin.



Tropela Elkarteak Frantziako Tourreko lehiaketa jarri du abian. TROPELA.NET

Aurten ere sari ederrak jarri dituzte irabazleentzat. Kanariar irletara astebeteko bidaiak, asteburu pasak, sagardotegiak, saskiak, ziklisten maillotak eta elastikoak, besteak beste. «Sariak lasterketa aurrera doan heinean gehituz joan ohi gara, babesle berriak hurbiltzen zaizkigun heinean. Horretaz gain, babesle batzuk beren herriko lehenarentzat ere saria jartzeko aukera ere badute. Iaz Zarauzko eta Zestoako lehenarentzat afariak banatu genituen eta, aurten, Azkoitiko lehenak ere saria izango du. Ea beste babesleren bat animatzen den bere herriko irabazlearentzat saria jartzera, publizitatearen truke», azaldu dute Tropela Elkarteak kideak.

### Tropeltxoak giltzarri

Lehiaketako arrakastaren giltzarrietako bat tropeltxoak sortzeko aukera da. Tropeltxo horien bidez, jendeak ezagunen arteko lehiaketa mugatuak sortu ditzakete eta, hala, tropeltxo bateko kideen sailkapen mugatua ikusteko aukera eskaintzen du. Modu horretan, «koadri-

lako lagunaren artean, etxekoan artean edota lankideen artean beraien lehiaketatxoa antolatzen dute, beraien artean nahi dituzten sari edota apustuak eginez». Jada, 4.000 tropeltxotik gora sortu dituzte.

Frantziako Tourraz gain, aurten beste zortzi lehiaketa antolatu du Tropelak: martxoan, Paris-Niza; apirilean, Euskal Herriko Itzulia eta Ardenetako Klasikoak; maiatzean, Italiako Giroa; ekainean, Dauphine Liberé; uztailan, Frantziako Tourra eta Donostiako Klasikoa; irailean, Espainiako Itzulia; eta denboraldia amaitzeko, Munduko Txapelketa. Lehiaketa guztiak puntuak metatuz, gainera, Tropela Sailkapena 2010 deituriko denboraldiko sailkapen orokorra sortu dute.

Denboraldi amaieran, Tropela

Sariak banatzen dituzte, euskal txirrindulari batzuen presentziarekin. Hasierako urteetan Zestoako Bainuetxean egin ohi bazuten ere, iaz Zarauzko Urola Kosta Udal Elkartearen egoitzan izan zen ekitaldia.

Lehiaketez aparte, Tropelak txirrindularitzari buruzko blog interesgarria du bere webgunean. Bertan, lasterketen jarraipena eta iritzi artikulua argitaratu ohi dituzte, eta erabiltzaileei iritzia emateko aukera eskaintzen diete. Bestalde, «euskal txirrindulariei jarraipen berezia egiten saiatzen gara eta haiekin ere harreman estua daukagu». Tropela elkarte irekia da eta norbaitek kolaboratu nahiko balu edo proposamenak egin nahiko balitu, *tropela@tropela.net* helbidera idatzi dezake.

